

BALIO PROPOSAMENA

Gutako guztiok, gizakiak duen irakasgai handiaren erantzule gara, BIRZIKLATZEAREN erantzule. Gaur egun dugun egoera ikusita, gutako bakoitza maskarekin eta eskularruekin babestera behartuta gaude, eta osagarri horiek nahitaezkoak bihurtu dira gure eguneroko lanak egin ahal izateko.

Egoeraren larritasunaz jabetu behar gara, degradagarria ez den material hori kontsumitu ahal izateko.

Gure enpresak ingurumena hobetzea du helburu, eta ondorioz material berria sortzea dugu helburu, berziklatutako materiala erabiltzen alegia. Gu hasieran boligrafoak lantzen hasiko gara banbua erabiliz, eta gure ideia gutxinaka-gutxinaka handitzen joatea da, produktu gehiago eskainiz. Guri esker plastikoaren erabilera murriztu egingo litzateke eta lan asko eginez, espero dugu plastikoaren erabilera hori hasieran espero duguna baino gehiago murriztea, eta ondorioz ingurumenari arnasaldi bat ematea.

Gure enpresa besteengandik bereizten duen funtsezko produktua banbuzko boligrafoak izango lirateke. Inoiz inork sortu ez dituen produktuak sortuko ditugu helburu garrantzitsu batekin, eta jendea egoerataz benetan jabetzea dugunez beste helburuetariko bat, horrek bultzatuko lituzke gure produktua erostera.

Gure boligrafoaren kalitate desberdina izango da. Gure enpresako lan dena guztia guk egingo dugu, diseinatzetik hasita marketing arlorarte. Ondorioz dena berria izango da, inoiz ikusi ez den boligrafo bat diseinatuko dugu, material berri batekin eta estetika desberdin batekin.

Beste alde batetik, prezioa gure lanaren eta gastuen araberakoa izango da. Materiala guztiz desberdina da eta ondorioz ez da erraza lortzeko, banbua enpresa baten bidez lortuko dugu eta horrek gastuak izango ditu. Prozesua guztiz guk egingo dugu, eta guk lan handiena egin arren, makina desberdin batzuk erabili beharko ditugu lana errazteko eta bizkortzeko.

Hau guztiak gastu batzuk baditu, eta hasiera hori langileen poltsikotik aterako dugu, diru guzti hori berreskuratzeke asmoarekin.